**Berdintasuna, partaidetza eta etorri berriak (aniztasuna):**

Naziarteko jakien azoka indartu eta gisako ekimen gehigo “kanpoko jendeari” bideratuta bezala herriko parte sentitu daitezen.

Integraziorako ekimen

Aholkularitza Edo bitartekaritza etorri berrientzat. Inmobiliariek abusatu egiten dute, partikularrek ez dakit zenbateraino.

Aniztasuna kontuan izanda eta pertsona gorren eskubideak kontuan izanda zeinu hizkuntza itzultzailea jartzea edozein agerraldi publikoan.

Etorri berriak eta,orokorrean,pertsona atzerritarrak herrigintzan partez hartzera gonbidatuko nituzke.Euskarara gerturatzeko moduz bat ere izan daiteke.

Aurten Nazioarteko Jakien V. Azoka antolatu da, herrian bizi garenon artean elkar ezagutzeko eta hurbiltzeko aukera ematen duen ekimena. Datorren urtean VI. edizioa egingo da, eta horretarako aurrekontu-partida aurreikusita dago.

Euskarak gure herriaren ezaugarri nagusietako bat izaten jarraitzen du. Getariara etortzen diren guztiei hizkuntza horretara hurbiltzeko aukerak eskaintzen dizkie Udalak, askotan beste eragile batzuekin elkarlanean (UEMA, AEK eta abar). Horren barruan sartzen dira euskara ikasteko ikastaroak eta laguntzak, xuxurlari-zerbitzua eta horretarako behar diren aurrekontu-partidak. Neurri horiek 2027ko aurrekontuetan ere jasota daude.

Seinu-hizkuntzari buruzko aipamenari dagokionez, kontuan izan behar da Getarian 30 hizkuntza baino gehiago hitz egiten direla. Ez da erraza hizkuntza bakoitzari bere baliabideak eskaintzea; hala ere, teknologiek eskaintzen dituzten aukera berriak aztertzeko prest dago Udala.

Aholkularitzari dagokionez, azken urteotan Udalak etxebizitza eskuragarriagoa izateko politika publikoak sustatu ditu, betiere dituen bitartekoen eta baliabideen arabera.

**Gizarte zerbitzuak**

Kofradia Zaharra zahar etxe publiko bihurtu fatxada/kanpo itxura mantenduz

Lanerako gogoarekin etortzen direnei aukera eman.

Seria interesante conocer la situacion y necesidades de las personas mayores. Existen proyectos en otros municipios: Mirada activa, Aukeragune, Jubiloteka ( Burlada) gaztelekus pero de gente mayor(éste igual seria complicado aqui). Un ejemplo para que salseis: "Uharte, pueblo que cuida"

Garrantzitsua da kontuan hartzea eraikin horien jabetza ez dela beti bera. Nolanahi ere, Kofradia Zaharraren eta beste hainbat eraikinen egoera kezkagarria da. Azken urteotan, Udalak eraikin horiei erabilera emateko eta biziberritzeko ahalegina egin du. Hainbat proposamen landu eta dagozkien administrazio eta erakundeetan aurkeztu dira, baina, oraingoz, ez dute aurrera egin. Lan horretan jarraitzen dugu. Horren adibide dira Kofradia Zaharra eta gelaren inguruan HAPOn egindako proposamen berria, Tintalekuari erabilera emateko abian den lanketa eta EHUko Arkitektura Eskolarekin izandako harremanak. 2027ko aurrekontuetan ere, gainera, portuko eremurako partida bat jaso da.

Herritarrei lan-aukerak eskaintzea Udalaren helburuetako bat da. 2027an ere, TAO zerbitzuan herritarrak arituko dira lanean. Horrez gain, dirulaguntza-programak baliatzen jarraituko dugu: 2027an lau gazte kontratatuko dira, eta brigadarako beste bi langile hartuko dira sei hilabeterako.

Adinekoei zuzendutako hainbat partida jasotzen dira 2027ko aurrekontuetan. Pentsiodunen elkarteari dirulaguntza ematen zaio jarduerak eta dinamikak sustatzeko, eta aurrekontu berrietan 6.000 euro bideratuko dira hirugarren adinera eta ongizatera. Adinbizi egitasmoa bultzatzen ere jarraituko dugu. Gainera, adinekoek hala eskatuta, neguko hilabeteetan hilean behin dantzaldia antolatzen hasi gara Berdura plazan.

**Hezkuntza:**

Zentzu kritikoa sortu eta eragiten duten hitzaldi ikastaroak egin: Errusia Ukrania gerra, marxismoa, desazkundea…

Eskolarako autobusa ipini eguerdian Askizuko umeentzat

Ikastetxean sukalde propioa izateko bultzada eman

Garantizaría el derecho de poder comer en sus respectivos hogares de los barrios (askizu, meagas) en horario escolar a todos los niños y niñas del colegio publico de Iturzaeta. Para ello, considero imprescindible el acceso a un trasporte dotado para dicho fin, un autobús o furgoneta que lleve y traiga a los menores a sus casas para poder comer con sus familias y despues puedan volver al colegio. Es un servicio que ya estuvo en marcha, por lo que no se entiende porqué se quitó.

Hezkuntzako eragileekin ohiko koordinazioa egiten du Udalak, eta 2027an ere horrela jarraituko dugu. Hezkuntza-komunitateak egindako eskaerak jasotzen eta dagokien erakundeetan bultzatzen jarraituko du Getariako Udalak, orain arte bezala.

Ez da inoiz kendu Askizu eta San Prudentzioko haurrak eguerdian eskolara eramateko zerbitzua; egokitu egin da. Lehen, autobus txiki bat erabiltzen zen, eta azken urteotan taxi bidez eskaintzen da. 2027ko aurrekontuetan zerbitzu horretarako 7.816,60 euroko partida dago.

**Hirigintza, zerbitzuak eta ingurumena:**

Harritarten falta diren 2 zuhaitzak jarri. Gero eta zuhaitz gutxiago daude herrian Malkorbeko espaloian zeuden denak, palmera… San Anton mendia askoz gehiago zaindu alor guztietan (egurrezko egiturak, belar mozketak, zuhaitzak, segurtasuna…) urtez urte okerrera doa. - Potzuagan 100m ko etxe gutxiago eta 60m ko gehiago egin gero eta jende gehiago bakarrik edo binaka bizi delako. - Alokairu sozialeko etxeak egitean “betirako” izatea hori eta ez utzi lege aukerarik adib 30 urte barru saldu eta pribatu bihurtzeko.

Haurrentzako txokoa, ludoteka

Merkeko plazako haur parkeko lurra aldatzea eta parkeko elementuak berritzea. Lurra arriskutsua da, haur eta helduak erori egiten dira.

Askizuko lurra rural mantendu

Komun publikoak 'piraten' parkean. Haur eta umeekin errepidea pasatzeak ez dauka zentzurik. Komun irekiak kiroldegian. Kolore guztietako zakarrontziak, zakarrontziak dauden lekuetan. Zabor kontenedoreak maizago garbitu. Txakur kaken kontrol gehiago, eta baliabideak jarri. Alde zaharreko kaleak ganoraz garbitzea taberna guneetan. Komunitate energetikoak bultzatzen jarraitu.

Txakur parke bat edo beraietzat eremu espezifiko bat sortu. Sahatsaga goian bizikidetza arazoa dago. Txakur kakez beteta egoten da tirolina dagoen parkea eta zelai dena. Jasangaitza da. Kakak jasotzea bakoitzaren ardura dela gogoraraztekoa kartelak + triptikoak banatu

Ingurumena zaintzeko hondartzetako sarreretan bizikletak kandatzeko guneak jartzea.

Haurrentzako ludoteka bat (edo leku goxo eroso bat) beharrezkoa da. Batez ere eguraldi txarra dagoenerako; haurrek ez dute, herrian, goxo egoteko/jolasteko lekurik. Liburutegia ez da jolaserako, nonbait, eta astean 3 arratsaldetan besterik ez da egon irekita azken aldian. Zenbait haurrek Kutxa (diru bankua) erabiltzen dute aterpe gisa, pentsa!

Motoentzako aparkaleku gehiago behar dira.

Se exige que la zona rural de Askizu permanezca así y que bajo ninguna circunstancia se reconozca como zona urbana.

Accesibilidad, ha mejorado mucho pero todavia hay infraestructuras que se podria cambiar: acceso a los autobuses, poniendo plataformas fijas que queden a la altura del bus, tanto para sillas de ruedas, sillitas de bebes o personas con movilidad reducida. Todas las aceras deberian ser accesibles y lisas.

Zuhaitzei dagokienez, azken urteotan gero eta zuhaitz gehiago landatu dira, gure klimara ondo egokitzen diren espezieak aukeratuta. Aurten, gainera, 5.000 euroko partida jaso da zuhaitzak modu sistematikoan erosi eta landatzeko. Harritarteko

zuhaitzak direla eta adierazi udal-brigadak aldatuko dituela; bai horkoak eta baita egoera antzekoan dauden beste pare bat gunetan ere. Bioingeniaritzak ere tokia hartu du herrian: 2025ean eta 2026an hainbat esku-hartze egin dira, eta 2026an eta 2027an ere lan horiekin jarraitzea aurreikusten da. Mankomunitatearekin elkarlanean, herri-magaletako esku-hartzeetarako proiektua gehiago garatu nahi da, Europako dirulaguntza baten bidez.

Txakur-kakei eta animalien eta pertsonen arteko bizikidetzari dagokienez, 2027an 3.000 euroko partida bideratuko da gai hori lantzeko.

Askizuren izendapenari buruzko hainbat ekarpen ere jaso dira. HAPOa lantzen ari garen honetan, aurrerapen-dokumentuan auzoa orain arte bezala mantendu da. Bilera ireki bat egin zen ekarpenak jasotzeko, baina ez zen proposamen zehatzik aurkeztu. Horregatik, Udalak bi bilera antolatu ditu auzotarrekin. Meagasen egindako bileran, bertaratutakoek ez zuten beharrik ikusi. Askizun, berriz, auzoaren etorkizunari buruzko erabakia askizuarrek hartuko dutela adierazi genuen. Udalaren zeregina laguntza eta babesa ematea izango da, beharrezko ezagutza eta baliabideak eskainiz. Bilera horretan azaldu genuen ez ginela aurrez zehaztutako proposamen batekin joango: auzotarrek hitz egin, aztertu, landu eta eztabaidatuko dute, eta Udalak HAPOn jasoko du adostutakoa.

Irisgarritasuna Udalaren lehentasunetako bat da. Horretarako, irisgarritasun-plana du Udalak, eta haren arabera egiten du lan. Azken urteotan espaloiak egokitu dira, eta esku-hartze berriak irisgarritasun-arauak betez gauzatu dira. 2027an, herriko beheko eta goiko aldeak lotuko dituen igogailu berria egiteko 930.000 euro bideratuko dira.

Motozikletentzako aparkalekuen eskaera jasota geratuko da, eta Udaltzaingoari ere helaraziko zaio. Azken urteotan, oinezkoentzako espazioetatik motozikletak kentzeko, aparkaleku gehiago sortu dira. Aparkaleku batzuk beste batzuk baino beteago egon daitezkeen arren, inguruan lekua aurkitzea posible izaten da.

Haurrentzako espazioei buruzko proposamenak ere jaso dira, eta estalpe berriak aukera berriak eskaintzen dituela uste dugu. Dauden espazioak modu partekatuan erabiltzea eta ardurak modu komunitarioan lantzea aukera bat izan daiteke; aztertu

beharreko gaia da. Gainera, haurrek hala eskatuta, aurten 5.000 euroko partida jarri da haurrentzako ekimenak antolatzeko, ohiko jai eta jarduerez gain.

Hondartzetako sarreretan bizikletentzako aparkalekuak jartzeko eskaera dela eta adierazi, 5.000 euroko partida jaso dela 2027ko aurrekontuetan. Zehaztu beharko da non kokatuko diren.

Etxebizitza Udalaren lehentasunetako bat da, eta azken urteotan hainbat neurri eta erabaki hartu dira arlo horretan. 2027an, Potzuaga-Gainako etxebizitzetarako ordenantza landuko da, sustatzailearekin xehetasunak adosteko lanarekin jarraituko da, eta Euskaltxetako oinarrizko proiektua idatzi ondoren, Jaurlaritzak proiektua idazteko hurrengo urratsak bultzatuko dira. Getariarrek Getarian bizitzen jarraitu ahal izateko lanean segituko dugu, egungo errealitatearen azterketatik abiatuta.

Merkeko haur-parkeari dagokionez, azken urteotan herriko parkeen egoera aztertu da, eta mantentze- eta hobekuntza-lanak egin dira. Parke horretan esku-hartze handiagorik egin ez bada, herriko beheko eta goiko aldeak lotuko dituen igogailuaren lanak bertatik igaroko direlako da; obrek iraun bitartean makineria eta langileak eremuan ibiliko dira. Igogailuaren obrak 2027an hastea aurreikusten da, eta lanak amaitzean haur-parkea hobetzeko aukera izango da.

**Kirola:**

Bista-onatik Marlkorberako labarrean eskalada gunea

Kiroldegiak ordutegi zabalagoa eskaini dezala

Igeriketa librea praktikatu ahal izateko behar diren istalazioak jartzea itxasoan eta hondartzan. Baita ikastaroak ere.

Kalistenia parkea, haurrentzako ur txorroak

Kirol-arloan, 2027ko aurrekontuetan 10.000 euro jaso dira fitness-ekipamendua hobetzeko. Kiroldegiko ordutegia zabaltzeari dagokionez, lehenago ere ordutegi zabalagoa probatu zen, eta haren erabilera aztertu ondoren ikusi zen erabiltzaile-kopurua oso txikia zela. Datu horiek kontuan hartuta, egungo ordutegia mantentzea egokitzat jotzen da.

Ur-irekietako igeriketarako proiektua landuta dago, Mankomunitatearekin elkarlanean, eta gauzatzeko ezinbestekoa da Foru Aldundiarekin koordinatzea. Itsasoko eremurako aurreikusitako materiala eta lanak esleituta daude, eta prest dago dena; ezartzeko une egokia zehaztu behar da. Instalazioen egitura eta antolaketa ere prestatuta daude, baina horiek gauzatzeko dirulaguntzak bilatu behar dira. Gaur-gaurkoz, Foru Aldundiak bi urtean behin instalazioetarako ateratzen duen dirulaguntza ez da nahikoa: dagokion laguntza-lerroan gehienez 80.000 euro ematen dira, proiektuaren kostua 700.000 euro ingurukoa denean. Udalak lanean jarraituko du proiektua gauzagarri egiteko.

Kalistenia-parkea, haurrentzako ur-zorrotadak eta eskalada-gunea egiteko proposamenak jasota geratu dira.

**Kultura eta euskara**

Euskeraren erabilera galera larria da bai Getarian bai EH n. Kontzientzia, abertzaletasuna eta konfrontazioa (Andueza, CCOO eta gisakoekin) bultzatu behar dira euskeraren erabilerak gora egiteko: manifestazio, hitzaldi, koertzio neurriak euskera ez dakiten langileak dituzten enpresekin... Ekintzak behar dira. - Giroa tabernan tv pantaila handia kalerantz menua euskeraz, gazteleraz, frantsesez ta inglesez hori Getarian normalizatuta!?

Liburutegia arratsaldez astelehen-ostiral irekita egotea

Jaietako barreketan Euskal musika jartzea eta merkeagoak izatea.

Elkano kalea eta General Arnao kaleko kurbak horretan panel interesgarri bat dago. Bertan, Gipuzkoako Independentzia aldarrikatu zela azaltzen da. Interesgarria litzateke gutxienez Getariako kale batek Independentzia kalea izena edukitzea. Akaso General Arnaro-ren ordez?

Parebat errealdoi eskatuko nizkioke udalari. Getariko ume eta heleuentzako festak alaitzeko balioko luketelakoan. Adibidez: bat sarekonpontzailea eta bestea mahastizaina.

Haurrentzako kultura gehiago! Ikuskizun eta emankizun gutxi eskeintzen dira herrian. Dantza, musika, antzerkia... ikusteko beste herrietara joan behar izaten dugu ia beti.

Festen testuingurutik kanpora ere kultura kontsumitu dezakete haurrek ( festetan ere kultura eskaintza murritza dute haurrek, dibertsiora bideratzen delako dirua gehienbat). Zer nolako pertsonak hezten ari gara??? Kulturaz gozatzen txikitatik hasten da!

Euskara guztion kezka da. Getaria euskararen arnasgunea da eta aspalditik da UEMAko kide. UEMAko teknikaria da Udalaren erreferentea, eta harekin batera lantzen dira euskararekin lotutako gaiak. Udalak euskararen erabilera sustatzeko plana du, eta hura garatzen jarraitzen du; besteak beste, ostalaritzan jarraipena eginez, eskolako komunitatearekin elkarlanean arituz eta euskara-ikastaroak eskainiz. Terrazen ordenantzak, gainera, berariaz jasotzen du karteldegiak euskaraz edo euskara lehenetsiz agertu behar duela. Urtero bezala, lan horretan jarraituko dugu.

Bestalde, 2027ko aurrekontuetan 5.000 euro bideratu dira haurrei berariaz zuzendutako egitasmoak sustatzeko. Getariako kultur-dinamikaren bizkarrezurra herriko eragileak dira: askotariko elkarteek ekimen ugari antolatzen dituzte urte osoan. Udalak 2027ko aurrekontuetan 196.000 euro inguru bideratuko ditu dinamika horiei laguntzeko.

Liburutegiaren ordutegia duela pare bat urte aldatu zen, egoerak hala eskatuta eta liburutegiko errealitatea ezagutzen zuten langileen eta arduradunaren gomendioei jarraituz. Helburua liburutegiaren zerbitzua indartzea zen, eta urtero egiten ditugun jarraipen-bileretan hobekuntza nabarmena izan dela baloratzen da.

Jaiei dagokienez, azken urteotan aurrerapauso handiak eman dira buru-handien presentzian; gaur egun, jaien ezinbesteko parte dira. Azken urteotan, Salbatore jaietan erraldoi txikiak eta erraldoiak ekartzen ditugu. Herriko erraldoiak izateko proposamena aztertuko da. Barraketaz esan ez direla merkeak, baina gogorarazi behar da Udalak ordaintzen duela Portu Agintaritzak eremuaren okupazioagatik eskatzen duen kopurua (8.402 euro), prezioei eutsi ahal izateko.

Kale-izendegiari buruzko proposamena ere jasota geratu da. Orain arte, kale-izen berriak baliatu dira herriaren iruditerian bestelako balioak txertatzeko. Kale baten izena aldatzeak, ordea, baditu hainbat zailtasun; besteak beste, bizilagun guztiek beren

datuak eguneratu beharko lituzkete. Nolanahi ere, datozen hilabeteetan edo urteetan azter daitekeen proposamena da.

**Ogasuna (zergak, ...):**

Etxebizitza hutsak eta bigarren etxebizitzak ez dakit nola ezberdintzen diren, baina zerga ezberdinak eduki beharko lituzkete.

Alokairuan dauden etxe bizitzen prezioa regulatu.

Etxebizitza gure gizartearen arazo nagusietako bat da, eta Udalak eskura dituen tresnak erabiltzen ditu arlo horretan eragiteko. Etxebizitza hutsak zer diren Ordenantza Fiskaletan zehaztuta dago, baita horiei aplikatzen zaien errekargua ere. Duela gutxi errekargua aldatu da, eta %100ean ezarri da.

Alokairuen prezioak arautzeko, Getaria eremu tentsionatu izendatu behar da. Horretarako eskaera eginda dago, eta erantzunaren zain gaude.

**Tokiko garapena (turismoa...):**

-Getarian turismoari jada ez zaio gehiago bultzatu behar. Prezioak gora doaz, eguneko menu normal bat jateko jatetxerik ez, komertzioak ixten… Tasa turistikoa makilaje gisa ikusten dut, azkenean “turismoa sustatzeko” erabiltzen delako, Insausti desiatzen dago Donostian ezartzeko… - Udalak/foru aldundi etab ek komertzio “publikoak” sustatu beharko lituzkete herrian. Adib: norbaitek zapata konpontzaile denda bat edo arrandegi bat zabaldu nahi badu herrian alokairua doan izatea, “zerbitzu beharrezko” bat ari delako eskaintzen ez dagoena.

Turismoa mugatu eta turistak erakartzeko kanpainarik inoiz gehiago ez egin

Askizura etortzen diren karabanei segimentua egin: askotan arauak hausten dituzte eta udala ez da konturatzen. Getariako kalean OTA bigilatzen den bezela, Askizuko parkingeko karabana eta furgonetak ere hala egin beharko lirateke.

Covid garaian Getaiko gune edo alternatiba ezberdinak bultzatu ziren, urtero beharko luke bultzada

Egoiliarren aparkalekuen sistema urte osora zabaldu asteburuetan. Eta udaran egoiliarren eremuan aparkatzen duten kanpotarrentzat grua??edo isun esanguratsuagoa. Aparkatu ezinda ibiltzen gara askotan

Balenziaga museoan astean zehar ekitaldi bat baldin badago, bertara datozenentzat aparkalekua moilan jarri. Beharrezkoa bada autobus lanzaderak antolatu beraientzat. Herrian ezin dugu aparkatu, gure kotxeentzat ez dago leku fisikorik

Turismoari garrantzia gutxitu eta herritarrengan gehiago pentsatu. Hostalaritzako egungo prezioekin, geroz eta herritar gutxiagok izango du aukera tabernetan kontsumitzeko.

Getariak bisitari eta turista asko jasotzen ditu, horietako asko Euskal Herrikoak. Errealitate ekonomiko eta sozial horri ahalik eta modu antolatuenean erantzuten saiatzen da Udala. Goi-denboraldian aparkalekuak arautzea da neurrietako bat; horretarako, TAOren indarraldia luzatu da eta langile ugari kontratatzen dira. Beste neurri bat da kanpaina berezirik ez egitea; aurten, gainera, telebista-kanal baten zuzeneko programa bati uko egin zaio. Bestalde, herriaren nortasuna eta historia lantzeko prozesua egin da: Jon Maiak herriko eragileekin batera egindako lanaren bidez, getariarrek herriaren izaeraz hausnartzeko aukera izan dute. Lan horrek gure herriaz gehiago jakin nahi dutenei zer kontatu eta zer erakutsi zehazten laguntzen du; Getariaren 13 ezaugarriak biltzen ditu, hala nola euskararen, musikaren eta arrain-nahasketaren ingurukoak. Terrazen ordenantza ere horren barruan kokatzen da.

Ibilgailuei buruzko proposamenei dagokienez, aparkalekuen ordenantza herritarren parte-hartze prozesu baten bidez egin zen, eta haren aplikazio-eremua eta indarraldiak egokitzen joan dira. Aurrerantzean baloratu beharko da indarraldia luzatzeko beharra. Ordenantzaren helburua egoiliarrak babestea da, eta ezarritako isunak legeak baimentzen duen gehienekoa da. Balenciaga museoko ekitaldiei dagokienez, antolatzaileei moilan aparkatzea gomendatzen zaie. Askizuko aparkalekuko karabanen jarraipen zorrotzagoa egiteko ere eskatuko zaio Udaltzaingoari.

Herriko merkataritza sustatzeko, 2026an bezala, 8.750 euro jaso dira 2027ko aurrekontuetan Babexarentzat. Dentartean elkartearekin elkarlanean, herriko merkataritza sustatzeko ekimena berriz abiatu dugu, eta elkarteak Udalari dirulaguntza eskatu dio. Bide batez, herritarrak animatu nahi ditugu herriko dendetan kontsumitzera.

**Gaztedia:**

Haur eta umeentzat gune goxo bat habilitatu.

Gazteentzat aukera asko daudela uste dut.Ez hainbeste umeentzat.Beste herri batzuetan,udal lokal bat erabilgarri izaten dute asteburuetan.Erreserba egin eta guraso arduradun bat izendatu beharko luke ume taldean.Getarian ere egin daitekeela uste det eta gastu handirik gabe.

Estalpe berriak aukera berriak ireki ditu. Horrez gain, espazio itxiak ere badaude, hainbat eragileren ardurapean. Espazio horiek modu komunitarioan erabiltzeko aukerak aztertzea proposatzen da.

**Beste edozein alor:**

Itsas zabaleko zimarroi haztegiaren kontra egin eta ahal bada itxi. Lehorrean “makrogranja” delakoek argi dago zer ekartzen eta sustatzen duten, itsasokoak ere berdin. Artisau arrantza, gertuko kontsumoa, ekologia etab diskurtso teorikoan erabili eta praktikan kontrakoa egin!? - Elkanoren diskurtso, museo, narratiba, ikuspegia etab dena norabidez aldatu beharko luke udalak Kolonialismoaren barruan kokatu gaia eta autokritika egin. - Gero eta gutxiago birziklatzen da Getarian ere. Harritarten errefuseko 2 kontenedore handi eta organikoko txiki bat bakarrik dago, horrekin dena esanda dago… Ez da ezer egiten, ez kontzientzi ez “inposaketa”. Atez atekoa inposaketa omen zen eta ez birziklatzea askatasuna!?

Herriko jaietan haurren ekintzak itzalpean, ez eguzkipean Abuztuan eta eguerdiko orduetan

Herrerita ondoko miradorean txakur kaken kontrako zerbait. Poltsak jarri eskuragarri? Isunak? Kamarak? Dena kakaz betea dago eta haurrak ezin dira ibili

Haurrak ahaztuta al ditugu???

Artzapeko egoera aldatu. Artikulu faltsuak saltzen dauden pertsona horiei neurriak jarri. Herritarrok bertatik pasatzeko lanak izaten ditugu eta.

Hondakinen bilketa Mankomunitatearen eskumena da, eta lizitazio berria laster ateratzekoa da. Garbiketari dagokionez, langileek egiten duten lana ona dela uste dugu, eta oro har, kaleak garbi daudela nabarmendu nahi dugu. Hala ere, animalien eta pertsonen arteko bizikidetza hobetzeko lanean jarraitzeko, 2027an 5.000 euro bideratuko dira hainbat ekimen gauzatzeko.

Bestalde, 5.000 euro bideratuko dira haurrei berariaz zuzendutako egitasmoak sustatzeko. Getaria dinamika kultural eta sozial handiko herria da, eta elkarteek urte osoan antolatzen dituzte haurrentzako jarduerak ere; ekarpen hori aitortzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Udalak hamarnaka mila euro bideratuko ditu 2027ko aurrekontuetan dinamika komunitario horiek sustatzen jarraitzeko. Jaietako haurren jarduerak itzalpean antolatzeko eskaera erantzunez esan, jasota geratu dela. Ez da erraza izango hori antolatzea, hainbat jardueraren ezaugarriak eta ordutegiak kontuan hartu behar baitira.

Artzape azpian bizimodua ateratzen ari diren herritarrak ere kontuan hartu behar ditugu. Gurea ez den espazio batean daude. Errespetua merezi dute.

Elkano eta Mundubiraren inguruan azken urteotan egindako lanketan berresten gara. 2019-2026 aldi bereziari ikuspegi zabal batetik heldu zaio. «Gure elkarrizketatik aterako da gure etorkizuna» izan da prozesuaren ardatzetako bat, eta hortik hainbat ekimen sortu dira.

Azkenik, itsasoak, arrantzak eta moilaren egoerak benetako kezka sortzen gaitula adierazi nahi dugu. Udalaren eskumena ez izan arren, gai horiek gureak ere badira, eta saiatu gara hainbat gunetan gaia mahai-gaineratzen, alternatibak proposatzen eta eragileak entzuten eta proposatutakoa bultzatzen. 2027an ere lan horretan jarraituko dugu. Aurrekontuetan partida batzuk jasotzen dira ondarea, itsas parrilla, Izan Arrantzale egitasmoa eta moilako espazioetarako proposamenak idazteko lana sustatzen jarraitzeko.